



ONDARROAKO UDALA



UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ohikoa

Eguna: 2019/12/26

Ordua: 9.10H- 9.20-H

Tokia: Udalbatza Aretoa, Udaletxeko 2. solairuan

Bertaratuak:

Alkatea: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA (Bildu)

ENERITZ BASURKO PAGOAGA (Bildu)

ARANTZA ATXURRA ARANGUREN (Bildu)

IRINA ALKORTA BEDIALAUNETA (Bildu)

PEDRO LASARTE IPARRAGIRRE (Bildu)

NAGORE BADIOLA ALBERDI (Bildu)

ARITZA ARISTONDO NATXIONDO (Bildu)

MARIA DOLORES ETXANO VARELA (EAJ)

ADRIAN OSA IBARLOZA (EAJ)

AGURTZANE IRIONDO LEJARDI (EAJ)

GORKA BADIOLA ETXABURU (EAJ)

ADINA CARRIL AZKARATE (EAJ)

AITOR BASTERRETXEA ALBERDI (EAJ)

Baita ere bertaratu dira:

JOSEBE ARAUKO URRUSOLO (Udal Kontu Hartzaillea)

MIKEL INCHAURBE OCERINJAUREGUI (Udal Arkitektoa)

Idazkaria: JOSE URRAZA ALDAYTURRIAGA



ONDARROAKO UDALA



Jarraian, Alkateak, azaroaren 28ko Errege Dekretu bidez oniritzitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoen Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatu du, eta batzordea eratutzat jo da.

Ondoren, gai zerrendako puntuak aztertu dira:

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA, EGOKI BALITZ (2019/11/28)

Alkateak galdetu du ea batzordekideren batek akta testuari buruzko adierazpenik egin nahi ote duen. Adierazpenik egon ez denez, 2019ko azaroaren 28ko Udal Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

2.- ALKATETZA DEKRETUEN KONTU EMANA

Dekretuen zerrenda (1086-1220) bidali zaie zinegotzi jaun andreei, baina ezin izan da posible dekretuen kopia aurretik bidaltzea.

Alkate jaunak dekretuen kontu emana hurrengo osoko bilkuran izango dela seinalatzen du.

3.- JUDIZIOZ KANPOKO KREDITUEN AINTZATESPENA

Idazkari jaunak hitza hartu du. Azaldu du judizioz kanpoko kredituen aintzatespenerako espediente bat hasi dela, udalak jasotako hainbat zerbitzu ordaindu ahal izateko.

Udal arkitektoaren txostenean, lanen azalpena eta kopuruak jasotzen dira:

"JUSTIFIKAZIO-TXOSTENA

Nik, udal arkitektoak, 2019. urtean zehar, "kontratazio-prozedura egokirik gabe jasotako prestazioengaitik (obrak eta zerbitzuak)" izandako lanen azalpen txosten eskaera jasota, hurrengoia diot;

Lehena.- AURREKARIAK:

2019. urtean zehar "kontratazio prozedura egoki gabe" udalak jaso dituen lanak hurrengoak izan dira;

1- Kamiñaldeko lur jausien ondorioz egindako obretan erabilitako HORMA AURREFABRIKATUAK

2- Eraikin publikoen garbiketa lanak.

Bigarrena.- JASOTAKO ZERBITZUEN FAKTUREN DATUAK:

1- Kamiñaldeko lur jausien ondorioz obretan erabilitako HORMA AURREFABRIKATUEN 2019ko ALOKAIRUA

VIUDA DE SAINZ IFK: A48154348

- Faktura - 4.988,93€(BEZ barne)*



ONDARROAKO UDALA



Partida: 05000-15320-2020100

2- Eraikin publikoen garbiketa

EULEN, S.A IFK: A28517308

- Faktura desberdinak – gastu totala; 603.459,07€ (BEZ barne)

Partidak: DESBERDINAK (2019/363RCan banakatua)

01000-13200-2270100 – Udaltzaingoa	5.732,28€(BEZ barne)
01000-92030-2270100 – Bake epaitegia	5.732,28€(BEZ barne)
01000-92920-2270100 – Udal edifizioak	27.108,30€(BEZ barne)
03000-32310-2270100 – Haurreskola	17.405,30€(BEZ barne)
03000-32320-2270100 – Ondarroako ikastetxeak	101.031,73€(BEZ barne)
03000-32330-2270100 – EPA	7.165,20€(BEZ barne)
03000-32620-2270100 – Musika eskola	11.941,90€(BEZ barne)
03000-33320-2270100 – Gazteleku	1.552,32€(BEZ barne)
04000-23110-2270100 – Gizarte Hezkuntza	6.992,46€(BEZ barne)
04000-23130-2270100 – Artibai Egoitza	253.167,95€(BEZ barne)
04000-23121-2270100 – Etxelila	1.552,44€(BEZ barne)
05000-15310-2270101 – Ilogailuak	11.941,86€(BEZ barne)
05000-31130-2270101 – Komun publikoak	13.733,29€(BEZ barne)
05000-92930-2270100 – Udal lan taldea	2.886,08€(BEZ barne)
06000-34210-2270100 – Zaldupe kiroldgia	119.781,89€(BEZ barne)
08000-33210-2270100 – Txomin Agirre liburutegia	8.828,23€(BEZ barne)
08000-33220-2270100 – Agiritegia	358,20€(BEZ barne)
08000-33310-2270100 – Guzuretxe	2.030,16€(BEZ barne)
08000-33430-2270100 – KZ gunea	4.537,20€(BEZ barne)

Hirugarrena.- JUSTIFIKAZIOA:

1- Kamiñaldeko lur jausien ondorioz obretan erabilitako HORMA AURREFABRIKATUEN 2018ko ALOKAIRUA (VIUDA DE SAINZ)



ONDARROAKO UDALA



Kamiñaldeko lur-jausiaren ondoriozko obraren iraupena uste zena baino luzeagoa izan zen. Hala, udal arkitektoak hasiera batean horretarako aurreikusitako gastua gaintu egin zen lanak bukatu aurretik eta, hortaz, kreditu barik gelditu zen jasotako azken fakturak ordaindu ahal izateko 2018an.

Horma aurrefabrikatuen alokairua, 2019ko urte hasieran, otsailean bukatu zen. Eta aurretik zetorren egoera luzatu egin zen .

3- Eraikin publikoen garbiketa (EULEN S.A.)

1- *O/1288 lizitazio espedientea: 2017ko abenduan prozedura irekia berriro ere hutsik geratu zen eta kontratu txikia prozedura jarraituta EULEN S.A. enpresak zerbitzua eman zuen. 2017ko abenduaren 5-eko 2017/1197 Dekretua*

2- *Bitartean, O/1335 expedientedun eta hirigintzak bideratutako lizitazio prozedura berria hasi zen, baina 2018ko maiatzean udal kontuhartzaileak fiskalizazio txosten etengarria eman zuen. Espedientea bukatutzat eman zen.*

3- *2018-ko abuztuaren 2-an udal aparejadorea eta espedientearen kudeatzailea zen Unai Castro Kortaberriak proposatu zion Alkate jaunari EULEN S.A.-ri zuzenean adjudikatzea udal edifizioen garbiketa zazpi hilabetetan egiteko (O/1288 espedientea) 283.936,78 + 59.626,73 (BEZ) = guztira 343.563,51€ ko kontratu txikia. Arrazoia zan, 2018ko apirilaren 31an enpresa horrekin sinatuta zegoen garbitasun kontratua bukatu zela eta lizitazio prozedura hutsik geratu zela. Aurkeztu zan lizitazio prozedura berria tramitatzeko kronograma, non aurreikusten zen kontratu berriaren hasiera 2018ko abenduaren 1ean.*

4- *Alkateak 2018/826 ebazpenaren bidez, EULEN S.A.-ri adjudikatzen dizkio lanak 2018/05/01etik 2018/11/30era 343.563,51 eurotan.*

5- *O/1354 lizitazio espedientea: kronograma-ri jarraituz, lizitazio berrian lanean hasten da.*

6- *2018/XII/30a iritsi da, kontratuko azken eguna, eta ez da aurrerantzean garbiketa lanak egiteko lizitazio espedientea garaiz atera.*

7- *Udal Eraikinen garbiketa lanak egin izan dira, 2018/05/01tik 2018/11/30ra eta EULEN S.A. enpresak bere lana bete du. 2018-ko azaroaren 30eko 2018/1230 Dekretua*

8- *2018ko azaroaren 30-ean, Espedientea barrio hasteko barne agindua eman da.*

9- *Lizitazio berria ateratzen den bitartean, Zerbitzua kontratatzeko beharra kontutan hartuta eta lizitazio irekia aurrera eramateko behar diren daten arabera arazoak kontutan hartuta, EULEN S.A. enpresari, kontratuaren 7 hilabetetako luzapena egitea aurreko lizitazioko baldintza teknikoaren pleguetan oinarrituta eta udal kontratazio prozeduraren edukiekin bat etorriaz. (2018/XII/01-2019/VI/30) 305.592,93€(BEZ barne)-ko kostua izan duelarik.*

10- *2019-ko otsailaren 8kon 2019/130 dekretuaren bidez, kontratu txiki bat egiten da EIBEX ASESORES CONSULTORES S.L. aholkularitza enpresarekin, Udal Eraikuntzen garbiketako zerbitzuko lizitazioa era egokian ateratzeko.*



ONDARROAKO UDALA



- 11- 2019-ko ekainaren 30a iritsi da EIBEX eta udal langileek Udal Eraikuntza Garbiketa Zerbitzuko lizitazioa publikatu gabe. Kronograma ez da bete. Bitartean, Idazkari eta teknikari aldaketak egon dira.
- 12- Udal Eraikinen garbiketa lanak egin izan dira, 2018/12/01tik 2019/06/30ra eta EULEN S.A. enpresak bere lana bete du. Udal arkitektoaren txostena dago.
- 13- 2019ko uztailearen 1-ean, Espedientea barrio hasteko barne agindua eman da. Zerbitzua kontratatzeke beharra kontutan hartuta eta lizitazio irekia aurrera eramateko daten arabera arazoak kontutan hartuta, EULEN S.A. enpresari, kontratuaren 6 hilabetetako luzapena egitea aurreko lizitazioako baldintza teknikoan pleguetan oinarrituta eta udal kontratazio prozeduraren edukiekin bat etorriaz (2019-VII-01 – 2019-XII-31) 297.866,14 €(BEZ barne)-ko kostua izan duelarik.
- 14- Udal eraikin publikoen garbiketa zerbitzu-ko lizitazioarako pleguak prest daude. Lizitazioa SARA motako kontratu bat izanik, eta eguneratutako kronogramaren arabera, 2019ko maiatzerako ebatziko da, eta 2019ko uztailean indarrean sartzeko moduan egongo da.
- 15- Udal Eraikinen garbiketa lanak egin izan dira, 2019/07/01etik eta agur egunerarte.

Laugarrena.- PROPOSAMENA:

Kontuan izan behar da udal kontratuen -esleipendunak- izan diren enpresek aurretiaz egindako lana kobratzeko eskubidea dutela, udalaren tramitazio administratiboaren baitan jarraitutako pausuak edozein direla ere. Hau da, jasotako faktura hori ez ordaintzeak udalarentzako bidegabea den aberastea suposatuko luke; beraz, adjudikazio-prozedura irregularra izan den arren, Ondarroako udalak AURREKO FAKTURAK ORDAINTZEA PROPOSATZEN DUT, bigarren puntuan zehaztutako partidaren kargura.

Ondarroan, 2019ko abenduaren 26ean"

Udal idazkariak egindako txostenaren arabera:

"Alkatetzaren probidentziaren bidez, 2019ko abenduaren 20an, hainbat gasturi (eraikinak garbitzea, obrak) buruzko kredituak judizioz kanpo aitortzeko espedientea hasi zen.

Udal-eraikinak garbitzeko zerbitzuaren kasuan, eta kontuan hartuta zerbitzu hori kontratazio irregular baten pean ematen ari dela, lizitazio-prozedura zuzenik ez dagoelako, udalak jasotako prestazioengatik egin behar den ordainketaren titulu materiala bidegabeki aberastea debekatzeko (*prohibicion del enriquecimiento injusto*) printzipio orokorra da.

Berariaz adierazi behar da judizioz kanpoko aintzatespenaren espedienteak ez duela egintza deusezak baliozkotzen, ez administrazio-prozeduraren irregulartasunak edo akatsak zuzentzen, ez eta erantzukizunak arintzen ere, bakarrik emandako zerbitzuak ordainduz administrazioa bidegabe aberastea saihesten du.

2019ko abenduaren 23an, udal-kontu-hartzaitzak dagokion txostena egin zuen, honekin batera doana. Eraikinen garbiketa-gastuak dira, 603.459,07 €guztira (2019ko ekitaldia).

Txosten horretatik honako hau ondorioztatzen da:



ONDARROAKO UDALA



"kontutan izanik kopurua lizitatu beharreko kontratu bat da, eta ez da horrela egin, horregatik ingera jarri beharra dago.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 70 artikulua arabera:

3.- ingera gastuen erabilpenari, betebeharrak aintzatespenari edo ordainketa aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebatzen den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen funtzesko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean

4.- Udalbatzako buruak ebatzi beharko du desadostasuna, eta haren ebazpena betearazi beharrekoa izango da.

5.- Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, ingera honelakoak direnean udalbatzak ebatzi beharko du eztabaida:

a) Kredituaren askiezintasunaren edo ezegokitasunaren ondoriozkoak.

b) Berak onetsi behar dituen betebeharrak edo gastuei dagozkienak."

Edifizioen garbiketa kontratua baliogabekoa da kontratazio izapidea ez delako egin, eta hala deklaratu beharko da.

Baliogabea izan arren, garbiketa zerbitzua emon da eta administrazioak debekatuta du bidegabe aberastea (prohibición de enriquecimiento injusto). Hori dela eta, EULEN SA indemnitzatu beharko da.

Egoera ikusita, kontuan izan beharko da Ley 7/19 42.3 artikuluan xedatutakoa, eta dagokion irtenbidea eman kontratazioa 9/2017 legearen arabera tramita bitartean.

Artículo 42. Efectos de la declaración de nulidad y efectos en supuestos de anulabilidad.

1. La declaración de nulidad de los actos preparatorios del contrato o de la adjudicación, cuando sea firme, llevará en todo caso consigo la del mismo contrato, que entrará en fase de liquidación, debiendo restituirse las partes recíprocamente las cosas que hubiesen recibido en virtud del mismo y si esto no fuese posible se devolverá su valor. La parte que resulte culpable deberá indemnizar a la contraria de los daños y perjuicios que haya sufrido.

3.-. Si la declaración administrativa de nulidad de un contrato produjese un grave trastorno al servicio público, podrá disponerse en el mismo acuerdo la continuación de los efectos de aquel y bajo sus mismas cláusulas, hasta que se adopten las medidas urgentes para evitar el perjuicio.

Txosten honen aurrekarietan jada adierazi dute udal zerbitzu teknikoek eraikinak garbitzeko zerbitzuaren premia larria, esate baterako, Artibai Egoitza zaharren egoitzako osasungarritasuna eta higiena, poliderportiboa, eta abar bermatzeko.

Beraz, idazkaritzaren txosten honek, bereganatzen du Udal Kontu Hartzailearen txostena (...)"



ONDARROAKO UDALA

Ondarroako Udaleko osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

1.- Judizioz kanpoko kredituen aintzatespena onartzea:

Viuda de Sainz: 4.988,93 €

Eulen SA: 603.459,07 €

2.- Udal Kontu Hartzaileak jarritako eragozpena edo ingera jasotzea.

3. Eraikinak garbitzeko zerbitzuaren kontratuaren deuseztasuna deklaratzeko.

4.- Eulen SAK zerbitzu hori ematen jarrai dezala, orain arteko baldintza berberetan, kontratu berria formalizatu arte, 2020ko ekainaren 30a baino lehen.

M^a Dolores Etxanok (EAJ) hitza hartu du, adieraziz Viuda de Sainz-eko fakturen informaziorik ez duela. Bestealdetik, EULENEN kasua, Udal edifizioen garbiketaren gastuari aurre egiteko idazkaritzako txostena kontuan izanda, argi dagoela Udalak ordaindu behar duela EULENeri zerbitzuak prestatu dabelako. Txostenean hala dator (erderaz jasoten dot, erederaz aurkeztu zalako txostena zati baten) "En el caso del Servicio de limpieza de edificios municipales, y partiendo de la base de que dicho servicio se está prestando bajo una contratación irregular, por falta de procedimiento de licitación correcto, el título material del pago que ha de hacerse por las prestaciones recibidas por el Ayuntamiento, es el principio general de prohibición de enriquecimiento injusto".

Bestalde, 23an goizean izandako Ogasun Batzordean eskatu zela, plenoaren ordua atzeratu behar zela, kotuan izanda idazkariaren txostenean, 23an atsaldetan jaso, eta aukera izateko, doguzan zalantzak argitzeko behar den moduan.

Azkenik seinalatu du bere taldearen bozka, dana kontuan izanda, kautelaz, abstentzioa izango dela.

Eneritz Basurkok hitza hartu du, seinalatuz gobernu-taldeak modu egokian kudeatu behar duela kontratazioa eta ordainketak.

Bozkatu eta aurreko proposamena onartu da, honako emaitzarekin:

Alde: 7 bozka (EHBILDU)

Abstentzioak: 6 bozka (EAJ)

Akordio hau jakinaraziko zaie udal kontu hartzaileari, udal arkitektoari, Viuda de Sainz eta EULEN SA-ri.

4.- ESKARI GALDERAK

Ez da egon.

Eta besterik egon ez denez, Alkateak batzarra amaitutzat eman du eta Jarduneko Udal Idazkariaren baimenez, Alkatearen oniritziarekin, bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut.

IDAZKARIA

ALKATEA

